

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko martxoaren 25etik 31rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/03/27

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko martxoaren 9koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira informazio, harrera, sarbideen kontrol eta instalazioen egiaztapenerako zerbitzu osagarrien enpresentzako hitzarmen kolektiboaren 2023. urterako soldata-etaulak. **7862 xedapena- 3 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/03/29

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Akatsen zuzenketa: Gipuzkoako ehunaren merkataritzaren hitzarmen kolektiboa (2010-2025). **1971 xedapena- 1 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/03/25

- **PRESIDENTENTZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Gailu elektrikoak eta elektronikoak.** PCM/285/2023 Agindua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita, berunaren erabilerari buruzko salbuespenei dagokienez, tresna elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murrizketei buruzko martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren IV. eranskina. **7659 xedapena- 8 or.**
- **ESPAINIAKO BANKUA. Finantza-erakundeak.** 2/2023 Zirkularra, martxoaren 17koa, Espainiako Bankuak emana, Arriskuen Informazio Zentralari buruzko maiatzaren 24ko 1/2013 Zirkularra aldatzen duena. **7662 xedapena- 115 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO. Gizarte-laguntza.** Akatsen zuzenketa: 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari buruzkoa. **7663 xedapena- 1 or.**

2023/03/27

- **INKLUSIOKO, GIZARTE-SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** Ebazpena, 2023ko martxoaren 17koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, Asturiasko Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren Zuzendaritza Probintzialaren eskumen-eremua zabaltzen duena, Ikatzaren Meatzaritzarako Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian sartuta dauden langileentzako hitzarmen bereziei eta zaintzaile ez-profesionalen hitzarmen bereziei buruzko prozedura eta jarduketei eta haien inpugnazioei dagokienez. **7733 xedapena- 2 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE-SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Pentsioak.** Ebazpena, 2023ko martxoaren 16koa, Gizarte Segurantza eta Pentsioetako Estatu Idazkaritzak emana, atzerrian bizi diren eta Espainiako Gizarte Segurantzaren konturako pentsioak (kotizaziopeko modalitatean) jasotzen dituzten pertsonen bizipena egiaztatzeko bitartekoak zehazten dituena. **7882 xedapena- 4 or.**

2023/03/28

- **LEHENDAKARITZA. Izendapenak.** 202/2023 Errege Dekretua, martxoaren 27koa, Héctor José Gómez Hernández jauna Industria, Merkataritza eta Turismo ministro izendatzen duena. **7887 xedapena- 1 or.**
- **LEHENDAKARITZA. Izendapenak.** 203/2023 Errege Dekretua, martxoaren 27koa, José Manuel Miñones Conde jauna Osasun ministro izendatzen duena. **7888 xedapena- 1 or.**

2023/03/29

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Zigor Kodea.** 3/2023 Lege Organikoa, martxoaren 28koa, Zigor Kodeari buruzko 1995eko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena animalien aurkako tratu-txarren arloan. **7935 xedapena- 7 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Animalien babesa.** 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzkoa. **7936 xedapena- 54 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Energia elektrikoa.** 3/2023 Errege Dekretu Legea, martxoaren 28koa, ekoizpen-kostuak doitzeko mekanismoa luzatzen duena, maiatzaren 13ko 10/2022 Errege Lege Dekretuan araututako handizkako merkatuan elektrizitatearen prezioa murrizteko. **7937 xedapena- 14 or.**
- **PRESIDENTENTZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Jabetza intelektual.** 209/2023 Errege Dekretua, martxoaren 28koa, kopia pribatuaren bidezko konpentsazioa ordaindu behar duten ekipoen, aparatuen eta euskarri materialen zerrenda, horietako bakoitzari aplikatu dakizkiokeen zenbatekoak eta apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginaren 25. artikuluan aurreikusitako erreproduktzio-modalitateen arteko banaketa ezartzen dituena. **7941 xedapena- 9 or.**

2023/03/31

- **KANPO ARAZOETAKO, EUOPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA Hauteskundeak.** AUC/306/2023 Agindua, martxoaren 28koa, Espainian deitutako hauteskunde-prozesuetan atzerrian hauteskontzietan botoa gordailutzeko gaitzen diren zentroak izendatzeko baldintzak ezartzen dituen. **8114 xedapena- 10 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga.** HFP/307/2023 Agindua, martxoaren 28koa, ekainaren 9ko HAC/590/2021 Agindua aldatzen duena, "Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zergaren autolikidazioa" izeneko 490 eredu onesten duena, eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituen. **8115 xedapena- 5 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Finantza-transakzioen gaineko zerga.** HFP/308/2023 Agindua, martxoaren 28koa, maiatzaren 26ko HAC/510/2021 Agindua aldatzen duena, "Finantza-transakzioen gaineko zergaren" 604 eredu onesten duena, eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituen. **8116 xedapena- 4 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/309/2023 Agindua, martxoaren 28koa, honako hauek onesten dituen: 792 eredu, "Telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaileek eta estatuko edo autonomia-erkidego batena baino handiagoko eremuko plataforma baten bidez bideoak trukatzeko zerbitzuaren emaileek egin beharreko ekarpenaren autolikidazioa"; eta 793 eredu, "Telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua ematen dutenek eta estatuko edo autonomia erkidego batena baino handiagoko eremuko plataforma baten bidez bideoak trukatzeko zerbitzua ematen dutenek egin beharreko ekarpenaren konturako ordainketak". Eta horiek aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dira. **8117 xedapena- 8 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/310/2023 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez onesten baitira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorten-ereduak (2022. ekitaldia), eta zehazten baitira horiek aurkezteko tokia, modua eta epeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorten-zirriborroa lortzeko, aldatzeko, berresteko eta aurkezteko prozedura, eta biak baliabide elektronikoen bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura. **8118 xedapena- 80 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zerga-prozedurak.** HFP/311/2023 Agindua, martxoaren 28koa, geroratu edo zatikatzeko eskabideetan bermea ekartzeko beharretik salbuetsitako muga 50.000 eurora igotzen duena. **8119 xedapena- 2 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/312/2023 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baitira: batetik, martxoaren 13ko HFP/227/2017 Agindua, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa zatikatuak egiteko 202 eredu onesten duena, establezimendu iraunkorrei eta Espainian presentzia duten atzerrian eratutako errenta-egozpenaren araubideko erakundeei dagokienez; baita 222 eredu ere, kontsolidazio

fiskaleko araubideko Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketa zatikatuak egiteko eta horiek elektronikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen. Eta, bestetik, ekainaren 12ko EHA/1658/2009 Agindua, zenbait zorren ordainketa helbideratzeko prozedura eta baldintzak ezartzen dituen, Zerga Administrazioari Estatu Agentziaren diru-bilketaren kudeaketan laguntzeko zerbitzua ematen duten kreditu-erakundeetan irekitako kontuen bidez. **8120 xedapena- 12 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/03/27

- **URAREN EUSKAL AGENTZIA.** EBAZPENA, 2023ko otsailaren 10ekoa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2022ko ekitaldirako uraren kanonaren hobariak eta salbuespenak aplikatzeko interpretazio-irizpidea ezartzen duena. **1487e xedapena- 3 or.**

2023/03/28

- **LEHENDAKARITZA.** 1/2023 LEGEA, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa. **1470e xedapena- 31 or.**
- **LEHENDAKARITZA.** 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena. **1471e xedapena- 56 or.**

2023/03/31

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** 35/2023 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakundearteko Batzordea arautzen duena. **1576e xedapena- 5 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/03/27

- **BATZAR NAGUSIAK. FORU ARAUAK.** 10/2023 Foru Araua, martxoaren 15ekoa, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa. **887E xedapena- 32 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/03/29

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 28/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 21ekoa. Honen bidez, aldatu egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautpetzen dituen Araudia. **I-360 xedapena- 4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/03/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 126/2023 Foru Agindua, martxoaren 18koa, lehen lizitazioan egindako enkante bidezko besterentze prozeduretan eskaintza elektronikoen aurkezpena arautzen duena. **2104 xedapena- 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2023/03/28

- **GOMENDIOAK.** 2023/688 Gomendioa (EB), Europako Batzordeak emana, 2023ko martxoaren 20koa, konpresio bidezko pizte-motorrak dituzten ibilgailuen aldizkako azterketa teknikorako partikula-kopurua neurtzeari buruzkoa. **L 90/46 xedapena- 19 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO